

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL**IRUNGO UDALA****Hirigintza eta Ingurumen Arloa***Iragarkia*

Udalbatza Txit Gorenak, honako erabaki hauek hartu zituen 2016ko uztailaren 27an eginiko Osoko Bilkuran:

«1. Behin betiko onestea 1.3.11 Arretxeko Malda eremuko Hiri Antolamenduko Plan Berezia.

2. Aurreko akordioan aipatutako Plan Berezia Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, argitaratu aurretik Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gordailutzeko.

Plana indarrean jartzeko, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 88. artikuluan aurreikusten diren ondorioak izan ditzan, lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da behin betiko onetsitako erabakiaren eta hirigintzako arauen eduki osoa, hirigintza-plan hori aipatutako hirigintzako erregistro horretan gordailutu dela adieraziz.

Dagokion lurralde historikoko egunkari hedatuene(t)an argitaratuko da behin betiko onespen-erabakia.

3. Akordio honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabeteko epean, honen jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta; edo bestela, Donostiako Administrazio Auzietako Salaren aurrean zuzenean aurkaratu, bi hilabeteko epean, honen jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta; hori guztia, bidezkotzat jo litekeen beste edozein errekurtso aurkezteko aukeraz gainera».

Betiko onartu beharreko Plana bidali da Hirigintza Plangintzako Erregistro Administrazioan gordetzeko.

Hau argitara ematen da ekainaren 30eko 2/2006 Zoru eta Hirigintza Legearen 89. artikulua jasotako ondorioetarako eta zedaturikoa betetzearren.

Irun, 2016ko uztailaren 29a.—Alkatea, eskuordetuta, hirigintza teknikaria. (5741)

HIRIGINTZA ARAUAK**ATARIKO TITULUA**

1. artikulua. Esparrua.
2. artikulua. Indarrean hastea.
3. artikulua. Indarrean egoteko baldintzak.
4. artikulua. Nahitaezkotasuna.
5. artikulua. Kontzeptuen terminologia.
6. artikulua. Plan Berezia osatzen duten dokumentuak eta haien arau hedadura.

LEHEN TITULUA. LURZORUAREN HIRIGINTZA ERREGIMENA.**1.1. KAPITULUA. KALIFIKAZIO ETA KATEGORIZAZIO ERREGIMENA.****AYUNTAMIENTO DE IRUN****Área de Urbanismo y Medio Ambiente***Anuncio*

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 27 de julio de 2016 acordó:

«1.º Aprobar definitivamente el Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito 1.3.11 Arretxeko Malda

2.º Remitir el Plan Especial a que se refiere el acuerdo anterior a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro administrativo de planeamiento urbanístico con carácter previo a su publicación.

A los efectos de la entrada en vigor del plan y para la producción de los efectos previstos en el artículo 88 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, se publicará en el boletín oficial del territorio histórico el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva y de las normas urbanísticas, con indicación de haberse producido el depósito del correspondiente plan urbanístico en el citado registro.

El acuerdo de aprobación definitiva se publicará además en el diario o diarios de mayor difusión en el territorio histórico correspondiente.

3.º El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa. Contra el mismo podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro recurso que considere pertinente.

El Plan objeto de aprobación definitiva ha sido remitido para su depósito al Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico.

Lo que se publica a los efectos y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 89 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo».

Irun, a 29 de julio de 2016.—La técnica de Urbanismo, p.d. del alcalde. (5741)

NORMAS URBANÍSTICAS**TÍTULO PRELIMINAR**

Artículo 1.º Ámbito.

Artículo 2.º Entrada en vigor.

Artículo 3.º Condiciones de vigencia.

Artículo 4.º Obligatoriedad.

Artículo 5.º Terminología de Conceptos.

Artículo 6.º Documentos constitutivos del Plan Especial y alcance de los mismos

TÍTULO PRIMERO. RÉGIMEN URBANÍSTICO DEL SUELO.**CAPÍTULO 1.1. RÉGIMEN DE CALIFICACIÓN Y CATEGORIZACIÓN.**

7. artikulua. Kalifikazio eta Kategorizazio Erregimenaren definizioa.

8. artikulua. Kalifikazio kodea.

9. artikulua. Kalifikazio xeheko eremuen Erabilera, Jabari eta Eraikuntza baldintzak.

1.2. KAPITULUA. HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIA GARATZEKO ETA GAUZATZEKO ERREGIMENA.

10. artikulua. Hirigintza jarduerarako erregimena.

BIGARREN TITULUA. LURSAIL ERAIKIGARRIKO ERABILERA ETA ERAIKUNTZA ORDENANTZAK.

2.1. KAPITULUA. ERAIKUNTZA, APROBETXAMENDU ETA BOLUMEN BALDINTZAK.

11. artikulua. Orotarikoak.

12. artikulua. Eraikuntza aprobetxamendua.

13. artikulua. Lursail zatiketa.

14. artikulua. Lerrokadurak.

15. artikulua. Sestrak.

16. artikulua. Aireko zortasunak betetzea.

17. artikulua. Profilak eta Altuerak.

18. artikulua. Patioak.

19. artikulua. Gorputz irtenak edo hegala.

20. artikulua. Elementu irtenak fatxadetan.

21. artikulua. Eskailerak eta etxebizitzetarako sarrerak.

22. artikulua. Igogailuak.

23. artikulua. Aprobetxamendua kontatzeko irizpideak.

2.2. KAPITULUA. JABARI BALDINTZAK.

24. artikulua. Jabari Baldintza Orokorrak.

25. artikulua. Zortasunak.

2.3. KAPITULUA. ERABILERA BALDINTZAK.

26. artikulua. Erabilera erregimena.

2.4. KAPITULUA. ERAIKINEN HIGIENE, OSASUN ETA SE-GURTASUN BALDINTZAK.

27. artikulua. Etxebizitza erabilerarako lokaletan aplikatu beharreko bizigarritasun irizpide orokorrak.

28. artikulua. Erabilera komuneko etxebizitzetan sartzeko espazioetan eta elementuetan aplika daitezkeen bizigarritasun baldintzak.

29. artikulua. Merkataritzako lokaletarako baldintza orokorrak.

30. artikulua. Garajerako lokalen baldintza orokorrak.

31. artikulua. Trastelekurako lokalen baldintzak.

32. artikulua. Bizikletentzako aparkalekuen eta higitzen laguntzeko ibilgailuak uzteko lokalen zuzkidura.

2.5. KAPITULUA. ESTETIKA ETA APAINDURA MAILAKO BALDINTZAK.

33. artikulua. Fatxadak.

34. artikulua. Estalkiak.

HIRUGARREN TITULUA. URBANIZAZIO ARAUAK.

3.1. KAPITULUA. DISEINU BALDINTZA OROKORRAK.

35. artikulua. Hirigintza Oztopoak kentzea.

36. artikulua. Ingurumen irizpideak.

3.2. KAPITULUA. ERAIKUNTZA BALDINTZAK ETA XEHETA-SUN EZAUGARRIAK.

Artículo 7.º Definición del Régimen de Calificación y Categorización.

Artículo 8.º Código de calificación.

Artículo 9.º Condiciones de Uso, Dominio y Edificación de las zonas de calificación pormenorizada.

CAPÍTULO 1.2. RÉGIMEN PARA EL DESARROLLO Y EJECUCIÓN DEL PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA.

Artículo 10.º Régimen de actuación urbanística

TÍTULO SEGUNDO. ORDENANZAS DE USO Y EDIFICACIÓN DE LA PARCELA EDIFICABLE.

CAPÍTULO 2.1. CONDICIONES DE EDIFICACIÓN, APROVECHAMIENTO Y VOLUMEN.

Artículo 11.º Generalidades.

Artículo 12.º Aprovechamiento edificatorio.

Artículo 13.º Parcelación.

Artículo 14.º Alineaciones.

Artículo 15.º Rasantes.

Artículo 16.º Cumplimiento de servidumbres Aeronáuticas.

Artículo 17.º Perfiles y Alturas.

Artículo 18.º Patios.

Artículo 19.º Cuerpos salientes o vuelos.

Artículo 20.º Elementos salientes en fachadas.

Artículo 21.º Escaleras y acceso a viviendas.

Artículo 22.º Ascensores.

Artículo 23.º Criterios de cómputo del aprovechamiento.

CAPÍTULO 2.2. CONDICIONES DE DOMINIO.

Artículo 24.º Condiciones Generales de Dominio.

Artículo 25.º Servidumbres.

CAPÍTULO 2.3. CONDICIONES DE USO.

Artículo 26.º Régimen de Uso.

CAPÍTULO 2.4. CONDICIONES HIGIÉNICO SANITARIAS Y DE SEGURIDAD DE LAS EDIFICACIONES.

Artículo 27.º Condiciones Generales de habitabilidad aplicables en los locales destinados al uso de vivienda.

Artículo 28.º Condiciones de habitabilidad aplicables en los espacios y elementos de acceso a las viviendas de uso común.

Artículo 29.º Condiciones generales para los locales destinados a comercio.

Artículo 30.º Condiciones de los locales destinados a garaje.

Artículo 31.º Condiciones de los locales destinados a trastero.

Artículo 32.º Dotación de aparcamiento para bicicletas y almacenamiento de vehículos de asistencia al desplazamiento.

CAPÍTULO 2.5. CONDICIONES ESTÉTICAS Y DE ORNATO.

Artículo 33.º Fachadas.

Artículo 34.º Cubiertas.

TÍTULO TERCERO. NORMAS DE URBANIZACIÓN.

CAPÍTULO 3.1. CONDICIONES GENERALES DE DISEÑO.

Artículo 35.º Supresión de Barreras Urbanísticas.

Artículo 36.º Criterios Ambientales.

CAPÍTULO 3.2. CONDICIONES CONSTRUCTIVAS Y CARACTERÍSTICAS DE DETALLE.

37. artikulua. Urbanizazio obren gutxieneko edukia eta baldintza teknikoak.

38. artikulua. Oinezkoentzako eremuen diseinuaren inguruko irizpideak.

LAUGARREN TITULUA. ANTOLAMENDUAREN BALDINTZATZAILAK.

39. artikulua. Eragin akustikoaren azterketa.

ATARIKO TITULUA

OROTARIKOAK

1. artikulua. *Esparrua.*

Ordenantza hauek «1.3.11. esparrua: Arretzeko Malda» Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren barnean bideratuko diren hirigintza eta eraikuntza mailako jarduera guztietan aplikatuko dira eta arautuko dute, halaber, esparru horretako lursail, eraikin eta espazio libre guztien erabilera.

2. artikulua. *Indarrean hastea.*

Plan honen zehaztapenak betiko onarpenerako erabakia eta dagozkion Ordenantzen testu osoa iragarri ondoko egunean hasiko dira indarrean, 2/2006 Legearen 97. artikulua xedatuaren arabera.

3. artikulua. *Indarrean egoteko baldintzak.*

Plan honen zehaztapenak indarrean iraungo dute, ondoko batzuek, unean uneko jardunbideari jarraiki, aldatu edo biderik gabe uzten dituzten arte.

Plan honen zehaztapenen bat edo batzuk biderik gabe utzirik edo aldatuz ere, gainerako guztiek indarrean iraungo dute, baldin eta ezdeusean geraturikoarekin inolako lotura edo mendekotasunik ez badute.

4. artikulua. *Nahitaezkotasuna.*

Hiri Antolamendurako Plan Berezi honen eremuaren barnean bideratuko diren eraikuntza eta lurzoru erabilera guztiak hartan jasotako antolamendu zehaztapenen, Irungo Udaleko Eraikuntzarako Ordenantza Orokorren arabera izango dira edo, hala behar badu, zehaztapen horiek behin-behinean ordezkatzeko xedapenen arabera.

5. artikulua. *Kontzeptuen terminologia.*

Ordenantza hauetan erabilitako kontzeptuak Lurzoruari buruzko Legean eta bertako Garapenerako Arauegietan erabilitako deitura berdinez zehazten dira.

6. artikulua. *Plan Berezia osatzen duten dokumentuak eta haien arau hedadura.*

Honako dokumentu hauek osatzen dute Plan Berezi hau:

A dokumentua: Memoria.

B dokumentua: Hirigintza arauak.

C dokumentua: Gauzatzea antolatzeko eta kudeatzeko jarraibideen azterketa.

D dokumentua: Ekonomia-finantza bideragarritasun azterketa.

E dokumentua: Informazio eta proposamen planoak.

F dokumentua: Iraunkortasun ekonomikoaren txostena.

G dokumentua: eragin akustikoaren azterketa.

Informazio eta Justifikazio Memoriaren (A Dokumentua) 3.3, 3.4. eta 4 epigrafeak, Garapenerako Hirigintza Arauak (B Dokumentua), Gauzatzea Antolatzeko eta Kudeatzeko Jarraibideen Azterketa (C Dokumentua) eta Informazio eta Proposamen Planoak (E Dokumentua) dira funtzio arau-emakia duten eta hiri-

Artículo 37.º Contenido y condiciones técnicas mínimas de las obras de urbanización.

Artículo 38.º Criterios sobre diseño de zonas peatonales.

TÍTULO CUARTO. CONDICIONANTES DE LA ORDENACIÓN.

Artículo 39.º Estudio de impacto acústico.

TÍTULO PRELIMINAR

GENERALIDADES

Artículo 1.º *Ámbito.*

Las presentes ordenanzas se aplicarán a todo tipo de actividad urbanizadora, constructiva y edificatoria, así como en la regulación del uso de las parcelas, edificios y espacios libres en todo el ámbito del presente Plan Especial de Ordenación Urbana: «Ámbito 1.3.11. Arretzeko Malda».

Artículo 2.º *Entrada en vigor.*

Las determinaciones del presente Plan entrarán en vigor una vez que se publique el acuerdo de aprobación definitiva, con inclusión del texto íntegro de las Ordenanzas, en los términos establecidos por el artículo 97 de la Ley 2/2006.

Artículo 3.º *Condiciones de vigencia.*

Las determinaciones del Plan mantendrán su vigencia en tanto no sean modificadas o derogadas por otras posteriores, con sujeción al procedimiento establecido.

La nulidad, anulación o modificación de alguna de las determinaciones del presente Plan no afectará a la validez de las restantes, salvo en el supuesto de que algunas de ellas resulten inaplicables por circunstancias de interrelación o dependencia.

Artículo 4.º *Obligatoriedad.*

Todos los actos de edificación y uso del suelo que se realicen dentro del territorio que comprende este Plan Especial de Ordenación Urbana, se deberán ajustar a las determinaciones de ordenación en él establecidas, a sus Ordenanzas Generales de Edificación o construcción del Ayuntamiento o, en su caso, aquellas disposiciones que eventualmente las sustituyan.

Artículo 5.º *Terminología de conceptos.*

Los conceptos utilizados en las presentes Ordenanzas se ajustan a las denominaciones empleadas en la Ley del Suelo y sus Reglamentos de Desarrollo.

Artículo 6.º *Documentos constitutivos del Plan Especial y alcance de los mismos.*

Los documentos de que consta el presente Plan Especial son los siguientes:

Documento A: Memoria.

Documento B: Normas urbanísticas.

Documento C: Estudio de las directrices de organización y gestión de la ejecución.

Documento D: Estudio de viabilidad económico-financiero.

Documento E: Planos de información y propuesta.

Documento F: Informe de sostenibilidad económica.

Documento G: Estudio de impacto acústico.

Los epígrafes 3.3, 3.4. y 4 de la Memoria Informativa y Justificativa (Documento A), las Normas Urbanísticas de Desarrollo (Documento B), el Estudio de las Directrices de Organización y Gestión de la Ejecución (Documento C) y los Planos de Información y Propuesta (Documento E) son los documentos con fun-

gintza jarduera bereziki arautzen duten dokumentuak eta, beraz, dokumentu horietan zehazturikoetara mugatuko da hirigintza jarduera.

Gainerako dokumentuek azalpen izaera dute nagusiki. Horrenbestez, kontraesanen bat badago beste dokumentu haiek hartuko dira kontuan.

Hirigintza alorreko zehaztapan bat egiterakoan, eskala desberdinetan eginiko plano arau-emaileen artean molde bateko edo besteko ezadostasunen bat suertatzen bada, eskala handiengan eginiko planoetan zehazturikoa hobetsiko da, ezadostasuna azken hauen begi-bistako eduki-akats nabarmenaren ondorio ez bada.

LEHEN TITULUA

LURZORUAREN HIRIGINTZA ERREGIMENA

1.1. KAPITULUA. KALIFIKAZIO ETA KATEGORIZAZIO ERREGIMENA

7. artikulua. Kalifikazio eta Kategorizazio Erregimenaren definizioa.

Hiri Antolamendurako Plan Berezi honen bidez ordenatuko den esparrua, Titulu honetan zehazten den kalifikazio xehearren erregimenaren arabera bideratuko da, honekin batera doan planoan zehazturiko mugaketari jarraiki.

Kategorizazioa hiri lurzoru finkatu gabearena da hirigintza eraikigarritasuna handitzeagatik

8. artikulua. Kalifikazio kodea.

Honako erabilera hauen arabera da kalifikazio xehea. Erabilera horiek bat datoz Plan Orokorrak zehaztutako sistemazioarekin:

– Bizitegi erabilerako lursailak.

RP. Bizitegi kolektiboa lursailean.

– Espazio libreak.

LL. Oinezkoentzako espazio libreak.

9. artikulua. Kalifikazio xeheko eremuen Erabilera, Jabari eta Eraikuntza baldintzak.

– Bizitegi lursaila.

RP. Bizitegi kolektiboa lursailean.

Jabaria: Pribatua.

Hirigintza erabilera: Etxebizitzak eta baimendutako erabilerak

Eraikuntza : Etxebizitza kolektiboa, Ordenantza hauetan arautzen dena.

– Espazio libreak.

LL. Oinezkoentzako espazio librea

Jabaria : Publikoa

Hirigintza erabilera: Oinezkoentzako bakarrik erabiltzeko espazio libreak. Salbuespen gisa, ibilgailuak igaro daitezke garajeetara joateko.

Eraikuntza: Sestra gainean behin-behineko eraikuntzak soilik onartuko dira, baldintza horietan onartutako erabileretarako.

1.2. KAPITULUA. HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIA GARATZEKO ETA GAUZATZEKO ERREGIMENA

10. artikulua. Hirigintza jarduerarako erregimena.

Kudeaketari dagokionean, Zuzkidura Jarduera da esparrua, eta zuzkidura kargak altxatu beharko dira hartatik.

ción específicamente normativa y de regulación de la actividad urbanística y por tanto ésta se deberá ajustar de forma obligada a sus determinaciones.

El resto de los documentos poseen un carácter fundamentalmente explicativo, por lo que, en caso de contradicción, serán aquellos los que prevalezcan.

Si se advirtiese discordancia respecto a una determinación urbanística concreta entre los planos de carácter normativo realizados a diferentes escalas, prevalecerá lo establecido en los planos redactados a escala más amplia, salvo que la discrepancia responda a manifiesto error material en el contenido de estos últimos.

TÍTULO PRIMERO

RÉGIMEN URBANÍSTICO DEL SUELO

CAPÍTULO 1.1. RÉGIMEN DE CALIFICACIÓN Y CATEGORIZACIÓN

Artículo 7.º Definición del Régimen de Calificación y Categorización.

El ámbito del sector objeto de este Plan Especial de Ordenación Urbana queda sometido al régimen de calificación pormenorizada que se define en el presente Título, de acuerdo con la delimitación establecida en plano adjunto.

La categorización es la de suelo urbano no consolidado por incremento de la edificabilidad urbanística.

Artículo 8.º Código de calificación.

La calificación pormenorizada, se ajusta a la siguiente relación de usos, que coincide con la sistematización asignada por el Plan General:

– Parcelas de uso residencial.

RP. Residencial Colectiva en Parcela.

– Espacios libres.

LL. Espacios Libres Peatonales.

Artículo 9. Condiciones de Uso, Dominio y Edificación de las zonas de calificación pormenorizada.

– Parcela residencial.

RP. Residencial Colectiva en Parcela.

Dominio: Privado

Uso urbanístico: Viviendas y usos autorizados.

Edificación: Vivienda colectiva regulada en las presentes Ordenanzas.

– Espacios libres.

L. Espacio Libre Peatonal.

Dominio: Público

Uso urbanístico: Espacios libres de uso exclusivamente peatonal. Excepcionalmente, queda autorizado el paso de vehículos a garajes.

Edificación: Sobre rasante se autoriza exclusivamente la implantación de construcciones provisionales destinada a los usos autorizados en esas condiciones.

CAPÍTULO 1.2. RÉGIMEN PARA EL DESARROLLO Y EJECUCIÓN DEL PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA

Artículo 10.º Régimen de actuación urbanística.

A efectos de gestión el ámbito constituye una Actuación de Dotación, en el que se debe proceder al levantamiento de las cargas dotacionales.

Esparruan bertan ezin direnez zuzkidura guztiak bete eta gauzatu (ezin dira «bestelako zuzkidurak» bete, sestra gaineko eraikigarritasuna handitzearen %20ri dagozkionak, 250,73 m²-ko eskasia baitago). Horrenbestez, Irungo Udalaren alde beharreko konpentsazio ekonomikoa egitea aurreikusten da.

Urbanizazio obra osagarrien proiektua idatziko da, eta baita Lursail zatiketarako proiektua ere, %15aren zesoaren kuantifikazioa jasoko duena

BIGARREN TITULUA

LURSAIL ERAIKIGARRIKO ERABILERA ETA ERAIKUNTZA ORDENANTZAK

2.1. KAPITULUA. ERAIKUNTZA, APROBETXAMENDU ETA BOLUMEN BALDINTZAK

11. artikulua. Orotarikoak.

Lursail eraikigarrian egiten diren eraikinek kapitulu hone-tan, planoetan eta ezaugarrien koadroan jasotako eraikuntza, aprobetxamendu eta bolumenerako baldintza orokorrak beteko dituzte, eta lursail bakoitzari egokituriko irabazizko erabilera duten azalera eraikigarriek eta, hala behar badu, bolumenek, azalera gorenaren izaera dute.

12. artikulua. Eraikuntza aprobetxamendua.

1. Sestra gaineko aprobetxamendua.

Bizitegi lursailen irabazizko erabilerarako baimentzen den sestra gaineko gehieneko aprobetxamendua 2.700 m²-koa da etxebizitza berrietan, eta etxebizitza erabilerarako eta harekin bateragarriak direnetarako erabiliko da.

Bizitegien hirigintza eraikigarritasunaren hazkundera 2.214,84 m²-s-koa denez, 885,93 m²-s-koa da sorturiko babes publikoko etxebizitzetarako sabai azalera, eta horietatik, gutxienez %50 (442,97 m²) BOErako izango dira eta gainerakoa (442,97 m²) PTERako.

2. Sestrapeko aprobetxamendua.

Sestrapean 2.700 m² dira gehieneko eraikuntza aprobetxamendua. Bi soto solairu eraiki ahal izango dira Beheko Solairuaren kotatik behera (Elizatxo hiribidean beheko solairuaren kota + 38,40; Auzolan kalean beheko solairuaren kota + 35,40).

Sestrapeko aprobetxamendua ibilgailuen aparkalekurako eta etxebizitzaren erabilera osagarrietarako izango da, eta gutxienezko estandarra beteko da, hauxe da, 0,35 plaza/bizitegi erabilerarako 25 m²-ko. Eraikuntza proiektuan 0,35*(2.700/25) gutxienezkoa beteko da, hauxe da, 38 plaza.

13. artikulua. Lursail zatiketa.

Bizitegi lursail bat, eta espazio publikoetarako beste bat definitu dira. Proiektu honen planoetan islatzen dira haien mugak.

SORTURIKO LURSAILAK

Lursaila	Azalera
1	1.301,48 m ²
A + B	548,46 m ²

Hala eta guztiz ere, Lursail Zatiketarako Proiektuak aipaturiko lursail hori zatitu edo azpizatitu ahal izango du bi lursail osatuz, beharrezkotzat hartzen diren azpilursailekin edo azpikomunitateekin, eta egokituz hartzen duen higiezin gunea sortu ahal izango du jabeen eskubideak hobeto izendatu edo esleitu ahal izateko, eta gutzia hobeto garatu ahal izateko.

Bi lursail sortzea erabakitzen bada, beharrezkotzat hartzen diren azpilursailekin edo azpikomunitateekin, plan berezi hone-

Como quiera que no se puede materializar en el propio ámbito el cumplimiento de la totalidad de las dotaciones (no es posible cumplimentar «otras dotaciones» equivalentes al 20% del incremento de edificabilidad sobre rasante, con un déficit de 250,73 m²), se prevé la pertinente compensación económica a favor del Ayuntamiento de Irun.

Se formulará un Proyecto de Obras complementarias de urbanización, y un Proyecto de Reparcelación que recogerá la cuantificación del 15% de cesión.

TÍTULO SEGUNDO

ORDENANZAS DE USO Y EDIFICACIÓN DE LA PARCELA EDIFICABLE

CAPÍTULO 2.1. CONDICIONES DE EDIFICACIÓN, APROVECHAMIENTO Y VOLUMEN

Artículo 11.º Generalidades.

Las construcciones que se desarrollan en la parcela edificable se ajustarán en cuanto a sus condiciones generales de edificación, aprovechamiento y volumen a lo especificado en el presente capítulo, en los planos y en el cuadro de características, en el que las superficies de techo edificable y volumen en su caso, destinados a usos lucrativos asignados a la parcela, tienen el carácter de techo máximo.

Artículo 12.º Aprovechamiento edificatorio.

1. Aprovechamiento sobre rasante.

El aprovechamiento sobre rasante máximo, destinado a usos lucrativos que se autoriza en la parcela residencial es de 2.700 m² en vivienda nueva, que se destinan al uso de vivienda y compatibles con el mismo.

Dado que el incremento de edificabilidad urbanística residencial es de 2.214,84 m²t, la superficie de techo destinada a vivienda de protección pública resultante es de 885,93 m²t de los cuales, un mínimo del 50% (442,97 m²) se destinarán a VPO y el resto (442,97 m²) a VPT.

2. Aprovechamiento bajo rasante.

El aprovechamiento máximo edificatorio bajo rasante es de 2.700 m². Se permite la construcción de dos plantas de sótano por debajo de las cotas de Planta Baja (cota de P.B. en Avda. Elizatxo + 38,40; cota de P.B. en C/ Auzolan + 35,40).

El aprovechamiento bajo rasante se destinará al aparcamiento de vehículos y usos auxiliares de la vivienda cumpliéndose la obligación de un estándar mínimo de 0,35 plazas/25 m² residenciales. Se dará cumplimiento en el proyecto edificatorio a un mínimo de 0,35*(2.700/25), es decir, 38 plazas.

Artículo 13.º Parcelación

Se definen una parcela residencial, y otra constituida por los espacios públicos. La delimitación de ambas se refleja en los planos del presente proyecto:

PARCELAS RESULTANTES

Parcela	Superficie
1	1.301,48 m ²
A + B	548,46 m ²

No obstante ello, el Proyecto de Reparcelación podrá dividir o subdividir la citada parcela creando dos parcelas resultantes, con las subparcelas o subcomunidades que se entienda necesario, podrá crear el complejo inmobiliario que resulte más adecuado, al objeto de posibilitar una mejor asignación o adjudicación de los derechos de los propietarios, y el desarrollo de todo ello.

Si se optase por la creación de dos parcelas resultantes, con las subparcelas o subcomunidades que resulten precisas,

tan definituriko sorturiko lursailaren lerrokadurak, altuera eta bolumetria errespetatu beharko dituzte lursail horiek, eta baita estetika eta arkitektura mailako baldintzak ere, eta gainera izaera unitarioa izan beharko dute.

Hala badagokio, zatiketa egin ondoren, Auzolan kaleko erai-kineko egungo garajeko sotoaren perimetro osoa hartu beharko du sorturiko 1. lursailak, gehi komunikazio gunea, eta sorturiko 2. lursailak, berriz, gainerakoa.

Hala badagokio zatiketa hori egin ondoren, lursail zatiketarako proiektua izango da aintzat hartu beharreko zortasunak edo baldintzak finkatuko dituen jabetza horizontalaren erregimenari, komunikazio gune komunari, garajeetarako sarbideari eta abarri dagokienean.

14. artikulua. Lerrokadurak.

Antolamenduaren planoetan zehaztu dira bizitegi lursailaren lerrokadurak.

15. artikulua. Sestrak.

Plan honek jasotzen dituen planoetan zehazturikoari jarraiki bideratuko dira urbanizazio sestrak, baina behar bezala justifikatu ondoren egokitze txikiak egin ahal izango dira topografiara egokitzeko, horretarako Plan Berezi hau aldatzeko beharrik izan gabe.

Sestrak ezin izango dira aldatu erabilera publikoko elementuen funtzionaltasunaren kaltetan, egoitza lursailen funtzionamendua edo haietarako sarbide baldintzak erraztu edo hobetzeko.

Bizitegi eraikuntzen altuerak zehazteko, profilen planoan jasotako altuerak hartuko dira erreferentziatzat.

16. artikulua. Aireko zortasunak betetzea.

Esparru hau Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barruan dagoenez, obrei ekiteko baimena lortu ahal izateko Arloko Arautegia eta aireko zortasunen esparruan aplikagarria den legeria eta hartatik eratorritako eragin akustikoei buruzko legeria bete beharko dira. Horren harira:

– 297/2013 Errege Dekretuaren bidez aldatutako Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, Donostiako Aireportuko aireko irrati-instalazioei eta aerodromoaren zortasun aldeari leku egiten dien eremuaren gaineko proiektzio ortogonalaren baitako azalera jarduera mugatuko zortasunaren eraginpean geratzen da, eta ondorioz, Aireko Segurtasunerako Estatuko Agentziak (AES) debekatu, mugatu edo baldintzatu egin ditzake haren baitan kokatzen diren jarduerak, hauek aireko operazioentzako arriskutsuak edo irrati-instalazioen funtzionamendu egokirako eragozpen baldin badira.

– Aukera hori, era berean, aipatutako jarduera horiek ezartzeko edo jarduera horiek garatzeko bideratzen diren lurzoruen erabilerrara hedatuko da. Besteak beste, honako jarduera hauek hartuko dira kontuan:

a) Turbulentziak eragiteko moduko eragozpenak dakartzaten edo eragozpen horien eraikuntza dakarten jarduerak.

b) Arriskuak sorrarazi edo nahasmenduak edo akatsak eragin ditzaketen argi, proiektore nahiz laser-igorleen erabilera.

c) Itsualdiak sorraraz ditzaketen azalera handi eta oso islatzaileak erabili behar izatea eskatzen duten jarduerak.

d) Aerodromoko mugimendu eremuaren inguruan faunaren jarduera suspertu dezaketen jarduerak.

e) Ezin ikusizko erradiazio-iturrien ezarpena edo funtzionamendua dakarten edo aireko komunikazio, nabigazio eta

dichas parcelas deberán respetar las alineaciones, altura y volumetría de la parcela resultante definida en el presente plan especial, así como las condiciones estéticas y arquitectónicas que, además, deberán tener carácter unitario.

Realizada en su caso la división, la parcela resultante 1 debería incluir la totalidad del perímetro del sótano del garaje actual del edificio de la calle Auzolan, más el núcleo de comunicación, y la parcela resultante 2, el resto.

Realizada en su caso esa división, será el proyecto de reparación el que establezca las servidumbres o condiciones necesarias que deben incluirse en cuanto al régimen de propiedad horizontal, en relación al núcleo de comunicación común, el acceso a garajes, etc.

Artículo 14.º Alineaciones.

En los planos de Ordenación se definen las alineaciones en la parcela residencial.

Artículo 15.º Rasantes.

Las rasantes de urbanización se ajustarán a lo establecido en los planos del presente Plan, pudiendo realizarse pequeños ajustes debidamente justificados para adaptarse a la topografía, sin que ello suponga modificar el presente Plan Especial.

No se podrán modificar con deterioro de la funcionalidad de elementos de uso público, para facilitar o mejorar el funcionamiento o las condiciones de acceso a la parcelas residencial.

Para la definición de las alturas de la edificación residencial se tomarán como referencia las establecidas en el plano correspondiente de perfiles.

Artículo 16.º Cumplimiento de servidumbres Aeronáuticas

Al encontrarse este ámbito dentro de la Zona de Servidumbres Aeronáuticas Legales pertenecientes al Aeropuerto de San Sebastián, para la obtención de la correspondiente autorización de obras se debe cumplir la Normativa Sectorial y legislación aplicable respecto a las servidumbres aeronáuticas y a las afectaciones acústicas derivadas de las mismas. A este respecto:

– En virtud de lo previsto en el artículo 10 del Decreto 584/72 de Servidumbres Aeronáuticas modificado por Real Decreto 297/2013, la superficie comprendida dentro de la proyección ortogonal sobre el terreno del área de servidumbres de aeródromo y de las instalaciones radioeléctricas aeronáuticas del Aeropuerto de San Sebastián queda sujeta a una servidumbre de limitación de actividades, en cuya virtud la Agencia Estatal de Seguridad Aérea (AES) podrá prohibir, limitar o condicionar actividades que se ubiquen dentro de la misma y puedan suponer un peligro para las operaciones aéreas o para el correcto funcionamiento de las instalaciones radioeléctricas.

– Dicha posibilidad se extenderá a los usos del suelo que faculden para la implantación o ejercicio de dichas actividades, y abarcará, entre otras:

a) Las actividades que supongan o lleven aparejada la construcción de obstáculos del tal índole que puedan inducir turbulencias.

b) El uso de luces, incluidos proyectores o emisores láser que puedan crear peligros o inducir a confusión o error.

c) Las actividades que impliquen el uso de superficies grandes y muy reflectantes que puedan dar lugar a deslumbramiento.

d) Las actuaciones que puedan estimular la actividad de la fauna en el entorno de la zona de movimientos del aeródromo.

e) Las actividades que den lugar a la implantación o funcionamiento de fuentes de radiación no visible o la presencia de

zaintza sistemen funtzionamendua oztopatu edo haietan eragin negatiboak sorraraz ditzaketen objektu finko edo mugikorren presentzia.

f) Aireontzientzako arriskutsu gerta litekeen ke, laino edo bestelako fenomenoren bat ekoizten duten instalazioen funtzionamendua dakarten edo errazten duten jarduerak.

g) Kirol edo beste mota bateko jarduerak egiteko propulsió edo airean egoteko sistemen erabilera.

— Esparru osorako 49 kota finkatu da itsas mailarekiko altuera goren gisa eta haren gainetik ez da inolako eraikuntzarik irtengo, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipoak, igogailuen kutxak, kartelak, dekorazio erremateak bezalako elementu guztiak barne. Era berean, kota hori ezin izango dute gainditu dagoen lurlean egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek, zutoinak, antenak, aerosorgailuak, haien palak barne, kartelak, energia elektrikoa garraiatzeko lineak, telekomunikazio azpiegiturak eta abar, eta ezta ibilgai-luentzako baimendutako galibo gorenak ere.

Zehatz esateko, OR.10 Planoan islatu dira zehaztapan hauek.

— Beharreko arauen arabera finkaturiko eraikigarritasuna gauzatu ahal izateko, goian azaldutakoari jarraiki definituriko gehieneko altueraren mugak bete beharko dira betiere. Muga horien ondorioz eraikigarritasuna ezin bada osorik gauzatu, eta kontuan izanik, daukaten funtzio sozialagatik, jabetza eskubide-arekiko legezko mugak direla Aireko Zortasunak, ondorio horietarako hartu daitekeen erabakiak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

— Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuak xedaturiko-ari jarraiki, esparru honetan ez dira Donostiako Aireportuan dabiltzan aireontzientzako arriskutsu izan litekeen ke, hauts edo gisakorik igortzen duten instalazioak baimenduko, ez eta aske dabiltzan hegaztientzako babesgune izan litezkeen instalazioak ere.

— Kontuan edukiko dira eguzki-argiaren balizko islapenak teilatu eta estalkietan, baita aireontzien tripulazioarentzako traba izan litezkeen eta aireko operazioen segurtasuna arriskuan jar dezaketen bestelako argi-iturri guztiak ere.

— Debekatuta dago Aireko Nabigaziorako irrati-instalazioen Segurtasun Eremuetan edozein eraikin eraikitzea edo lur eremuaren eraketaren aldi baterako edo betiko aldaketarik egitea, bertako gainazala edo haren gainean dauden elementuak aldatzea, Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESA) aldezturitik baimena ematen ez badu.

— Aireko Zortasunei buruzko 297/2013 Dekretuak aurreikusitakoari jarraiki, beharreko baimena eskuratu beharko da, eragozpenak mugatzen dituzten azalerak ez gainditu arren, aireko irrati-instalazioen funtzionamendu egokia nahasi dezaketen erradiazio elektromagnetikoak sorraraz ditzakeen irrati-igorleak edo bestelako gailuak paratu ahal izateko.

— Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikuntza egin ahal izateko, eta hura eraikitzeke behar diren bitartekoak (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne) jarri ahal izateko, aldezturitik aldeko txostena eman beharko du Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziak (AESA), Aireko Zortasunen inguruko Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.

Bestalde, OR.10 Planoan, Plan honen dokumentazio grafikoren barnean baitago hura, islatzen da esparru honen antolamendua, bertan definituriko Aireko Zortasunen azalera mugatzaileen mailaren marrei gainjarria, eta baita esparru honeta-

objetos fijos o móviles que puedan interferir el funcionamiento de los sistemas de comunicación, navegación y vigilancia aeronáuticas o afectarlos negativamente.

f) Las actividades que faciliten o lleven aparejada la implantación o funcionamiento de instalaciones que produzcan humo, nieblas o cualquier otro fenómeno que suponga un riesgo para las aeronaves.

g) El uso de medios de propulsión o sustentación aéreos para la realización de actividades deportivas, o de cualquier otra índole.

— Para la totalidad del ámbito se establece la cota 49 como altura máxima respecto del nivel del mar y por encima de ella no debe sobrepasar ninguna construcción, incluidos todos sus elementos como antenas, pararrayos, chimeneas, equipos de aire acondicionado, cajas de ascensores, carteles, remates decorativos, etc. Igualmente no podrán ser rebasadas por modificaciones del terreno existente u objetos fijos del tipo de postes, antenas, aerogeneradores, incluidas sus palas, carteles, líneas de transporte de energía eléctrica, infraestructuras de telecomunicaciones, etc., así como tampoco el galibo máximo autorizado para los vehículos circulantes.

Estas determinaciones quedan reflejadas concretamente en el Plano OR.10.

— La materialización de la edificabilidad establecida normativamente estará siempre condicionada al cumplimiento de las limitaciones de la altura máxima definidas en los términos más arriba expuestos. En el caso de que la edificabilidad no pudiera materializarse completamente debido a dichas limitaciones y dado que las Servidumbres Aeronáuticas constituyen limitaciones legales al derecho de propiedad en razón de la función social de ésta, la resolución que a tales efectos pudiera evacuarse no generará ningún tipo de derecho a indemnización.

— En cumplimiento del Decreto 297/2013, de Servidumbres Aeronáuticas, en el presente ámbito no se permitirán instalaciones que emitan humo, polvo, niebla o cualquier otro fenómeno en niveles que constituyan un riesgo para las aeronaves que operan en el Aeropuerto de San Sebastián, incluidas las instalaciones que puedan suponer un refugio de aves en régimen de libertad.

— Se deben tener en cuenta las posibles reflexiones de la luz solar en los tejados y cubiertas, así como fuentes de luz artificial que pudieran molestar a las tripulaciones de las aeronaves y poner en peligro la seguridad de las operaciones aeronáuticas.

— Se prohíbe en las Zonas de Seguridad de las instalaciones radioeléctricas para la Navegación Aérea cualquier construcción o modificación temporal o permanente de la constitución del terreno, de su superficie o de los elementos que sobre ella se encuentren, sin previo consentimiento de la Agencia Estatal de Seguridad Aérea (AESA).

— Cualquier emisor radioeléctrico u otro tipo de dispositivo que pudiera dar origen a radiaciones electromagnéticas perturbadoras del normal funcionamiento de las instalaciones radioeléctricas aeronáuticas, aun no vulnerando las superficies limitadoras de obstáculos, requerirá de la correspondiente autorización conforme lo previsto en el Decreto 297/2013 de Servidumbres Aeronáuticas.

— La ejecución de cualquier construcción en el ámbito de las Zonas de Servidumbres Aeronáuticas Legales, y la instalación de los medios necesarios para su construcción (incluidas las grúas de construcción y similares), requerirá resolución favorable previa de la Agencia Estatal de Seguridad Aérea (AESA), conforme a los artículos 30 y 31 del Decreto 297/2013 sobre Servidumbres Aeronáuticas.

Por otra parte, en el Plano OR.10 que forma parte de la documentación gráfica de este Plan se refleja la ordenación de este ámbito, superpuesto a las líneas de nivel de las superficies limitadoras de las Servidumbres Aeronáuticas definidas para el

rako zehaztutako eraikuntzaren gehieneko altuera ere eta, behin antolamendua garatu ondoren aurreikusitako lurraren sestra kotak ere, hala behar badu.

Adierazitako baldintzatzaileak arautzen dituzten eta indarrean dauden irizpideak aplikatuko dira kasu hauetan guztietan.

17. artikulua. *Profilak eta altuerak.*

Honako eraikuntza profil hau aurreikusi da: Beheko solairua eta goiko bi solairu Elizatxo hiribidera ematen duen aurrealdean, eta erdisotoa, beheko solairua eta goiko hiru solairu Auzolan kalera ematen duen aurrealdean.

Etxebizitza solairuek 2,50 metroko gutxieneko altuera libre izango dute. Profil arau-emaileen ondorioetarako, 3,00 metroko altuera hartu da kontuan zorutik zorura, aireko zortasunaren +49 kotara iritsi gabe.

Eraikineko elementu finkoek ez dute +48,50 kota gaindituko, baina beste elementu batzuk +49.00 kotara iritsi ahal izango dira, esate baterako, tximiniak, instalazioak, Eraikineko elementu bakar batek ere ez du gaindituko +49,00 kota.

18. artikulua. *Patioak.*

Aireztapenerako barne patioak onartuko dira, Plan Nagusian haiek ezartzeko definitutako baldintza orokorrak kontuan harturik.

19. artikulua. *Gorputz irtenak edo hegalkak.*

Gehieneko lerrokaduretatik aurrera gorputz irtenak onartuko dira. Gorputz irtenak itxiak (miradoreak, galeriak eta antzekoak) edo irekiak (balkoiak, terrazak eta antzekoak) izango dira.

Hegala gehienez 1,80 metrokoa izango da, gehieneko lerrokaduretatik aurrera.

Aipaturiko hegal horiek baino gehienez 30 cm irten ahal izango dira teiltategalak edo erlaitzak.

20. artikulua. *Elementu irtenak fatxadetan.*

Fatxadari behe oinean atxikiriko zokaloak, pilastrak eta gainerako eraikuntza elementuak edo apaingarriak ez dira fatxada-lerrotik 0,15 m harantzago irtengo, olanak eta markesinak izan ezik.

Beheko solairuko lokaletako olana eta markesinak fatxada-lerrotik irten ahal izango dira, metro 1,00 gehienez, zabaldu gabe daudenean.

Zabaldurik ere, 3 metroko altuera libre edukiko dute gutxienez markesinek eta olanek espaloien edo gainean dauden espazioaren gaineko leku guztietan.

Altuera txikiagoan eta fatxada-lerrotik 0,20 m gehienez irtenik egokitu ahal izango dira, eta ez besterik, olanak eseki eta zabaltzeko behar diren euskarriak eta gainerako elementuak.

Goiko solairuetako erlaitzak, pilastrak, inpostak eta gainerako eraikuntza eta apaindura mailako elementuak 0,30 metro irten ahal izango dira fatxada-lerrotik.

21. artikulua. *Eskailerak eta etxebizitzetarako sarrerak.*

Gutxieneko neurriak eta ezaugarriak indarrean dagoen eraikinak Suteetatik Babesteko araudiak (DB-SI) zehazten dituenak izango dira. Indarrean dauden eraikinetarako irisgarritasun arauak beteko dituzte halaber.

Debekaturik daude eskailera kolektibo konpentsatuak.

Eskailerek kanpoko argia edo argi zenitala eduki ahal izango dute. Bi kasuetan, horri dagokionean BOEetarako zehaztutako araudia beteko da, eta baita Irungo Plan Nagusia ere.

Baranden gutxieneko altuerak Erabilera Segurtasunari buruzko araudian (DB-SU) xedaturikoa beteko du. Balaustren edo barandaren elementu bertikalen arteko aldeak ez ditu gaindituko araudi berean jasotako mugak.

mismo, así como la cota de altura máxima de la edificación establecida para este ámbito y en su caso, las cotas de rasante del terreno previstas una vez desarrollada su ordenación.

En todos y cada uno de estos casos será de aplicación los criterios reguladores vigentes de dichos condicionantes.

Artículo 17.º *Perfiles y alturas.*

Se establece un perfil edificatorio de Planta Baja y 2 Plantas Altas en el frente a Elizatxo Hiribidea, y semisótano, planta Baja y tres alturas en el frente a Auzolan Kalea.

Las plantas de vivienda tendrán una altura mínima libre de 2,50 metros. A efectos de perfiles normativos, se ha considerado una altura de 3,00 metros de suelo a suelo, no alcanzándose la cota +49, de servidumbre aeronáutica.

Los elementos fijos de la edificación no sobrepasarán la cota +48,50, pudiendo alcanzar la cota +49.00 otros elementos como chimeneas, instalaciones, La cota +49,00 no será sobrepasada por ningún elemento de la edificación.

Artículo 18.º *Patios.*

Se permiten los patios interiores de ventilación, cumpliendo las condiciones generales definidas para su implantación en el Plan General.

Artículo 19.º *Cuerpos salientes o vuelos.*

Se autorizan los cuerpos salientes de las alineaciones máximas. Podrán ser cerrados (miradores, galerías, y similares) o abiertos (balcones terrazas y análogos).

El vuelo máximo será de 1,80 m a partir de las alineaciones máximas.

Los aleros o cornisas podrán sobresalir hasta 30 cms más que los vuelos indicados.

Artículo 20.º *Elementos salientes en fachadas.*

Los zócalos, pilastras y demás elementos constructivos u ornamentales adosados a la fachada en planta baja, con excepción de toldos y marquesinas, no sobresaldrán de la alineación más de 0,15 metros.

Las marquesinas y toldos de los locales de planta baja podrán volar sobre la fachada un máximo de 1,00 metros en posición plegada.

Las marquesinas y toldos, incluso en posición desplegada, distarán de la acera o espacio libre sobre el que vuelan, una altura no inferior a 3 metros en cualquiera de sus puntos.

Sólo podrán situarse a menor altura con saliente máximo de 0,20 metros desde la alineación, los soportes y demás elementos previstos para extender y colgar los toldos.

Las cornisas, pilastras, impostas y demás elementos constructivos u ornamentales en plantas altas, podrán sobresalir hasta 0,30 metros de la alineación de fachada.

Artículo 21.º *Escaleras y acceso a viviendas.*

Las dimensiones y características mínimas serán las correspondientes a la normativa vigente de Seguridad en caso de Incendios (DB-SI) en los edificios. También cumplirán las vigentes normas de accesibilidad en los edificios.

Se prohíben las escaleras colectivas compensadas.

Las escaleras podrán disponer de iluminación exterior o cenital cumpliendo en ambos casos la normativa establecida a tal efecto para las viviendas VPO, así como el Plan General de Irun.

La altura mínima del barandado cumplirá lo establecido en la normativa de Seguridad de Utilización (DB-SU). La separación entre balaustres o elementos verticales de la barandilla no sobrepasará los límites establecidos en la misma normativa.

Etxebizitzetarako sarrerek, atari bat edukiko dute derrigorez, eta ez da sarrera eragoz lezaketan arkitektura oztoporik onartuko.

Etxebizitzetan barneko eskailera pribatuek 0,80 metroko zabalera izango dute gutxienez.

Azken solairuetako terrazetan eskailerak jarri ahal izango dira etxebizitzatik goiko estalki-laura joan ahal izateko.

22. artikulua. Igogailuak.

Dagokien araudi berezia beteko da igogailuen instalaziorako.

23. artikulua. Aprobetxamendua kontatzeko irizpideak.

1. Izaera orokorrez, honako espazio hauek hartuko dira kontuan eraikuntza aprobetxamenduaren barnean:

– 1,80 metrotik gorako altuera libre dute espazio itxiak eta irekiak –horietan altuera hori gainditzen duen zatia hartuko da kontuan–.

– Eraikineko elementu trinkoak.

– $\emptyset < 1.50$ metroko patioak eta instalazio hodiak.

– Igogailuen zuloak.

– Era guztietako portxeak, erabilera publikoko zortasunik ez dutenean (Horien azaleraren %50 hartuko da kontuan, baldin eta kanpoaldera irekiak badaude).

– 5,00 m²-ko azalera gainditzen duten balkoiak, terrazak eta eguterak (5 m²-ko azalera gainditzen duten azaleraren %50 hartuko da kontuan, baldin eta kanpoaldera irekiak badaude).

– Estalkipeetan arestian aipaturiko espazio eta elementu horiek hartuko dira kontuan, baldin eta batik bat lursailaren erabilera nagusirako edo baimenduriko erabileretarako erabiltzen badira.

2. Aitzitik, inolaz ere ez dira eraikuntza aprobetxamenduaren barnean kontuan hartuko honako espazio eta elementu hauek:

– 1,80 metro baino altuera txikiagoa duten espazio itxiak eta irekiak.

– $\emptyset > 1.50$ metroko patioak eta instalazio hodiak.

– Erabilera publikoko portxeak.

– Eraikinaren sabaia eratzen duten terrazak eta eguterak, baita sotoen gaineko terrazak ere, estalita ez badaude.

2.2. KAPITULUA. JABARI BALDINTZAK

24. artikulua. Jabari Baldintza Orokorrak.

Bizitegi erabilerako lursailek jabari pribatua izango dute azalera osoan, atal honetan ezarritako baldintzekin eta mugekin.

25. artikulua. Zortasunak.

Bizitegi lursailak eta hura okupatzen duen eraikinak edo eraikinek dagozkien zortasunak beteko dituzte, besteak beste, eta hala bada gogokio, garaje erabilerako sotoko solairuan sartzeko eta hartatik ateratzeko behar direnak.

